

**EITB MEDIA, S.A.U-REN ENPLEGU DEIALDI
PUBLIKOA “SAREETAKO LAGUNTZAILEA*”
LANPOSTURAKO**

AURKIBIDEA

Sarrera

1. Prozesu guztietarako arau orokorrak

- 1.1. Ebaluazio Epaimahaia.
- 1.2. Argitalpenak: deialdiak argitaratzea, prozesuari loturiko argitalpenak eta erreklamazio-prozedura.
- 1.3. Izena emateko prozedura.
- 1.4. Prozesu guztietarako betekizunak.
- 1.5. Lanpostu finkoak esleitzeko arauak.
- 1.6. Desgaitasuna duten pertsonen aldeko enplegu-erreserba.
- 1.7. Hautaketa-prozesuko datuak babestea eta kudeatzea.

2. Oinarri hauetan eskainitako kategoriarako enplegu-deialdi publikoari buruzko arau espezifikoak

- 2.1. Ebaluazio Epaimahaia.
- 2.2. Plazak eta sistema.
- 2.3. Lanpostuaren profila.
 - 2.3.1. Lanpostuaren eta funtzio/zeregin nagusien deskribapena.
- 2.4. Berariazko betekizunak.
 - 2.4.1. Titulazioa.
 - 2.4.2. Hizkuntza-eskakizunak.
 - 2.4.3. Gidabaimena.
- 2.5. Egin beharreko probak.
- 2.6. Merezimenduen balorazioa.
 - 2.6.1. Merezimendu profesionalak.
 - 2.6.2. Merezimendu akademikoak.
- 2.7. Plazak esleitzeko prozesua: azken kalifikazioak, berdinketa hausteko irizpideak eta azken esleipena.
- 2.8. Lan-poltsa.

3. Eranskinak

- 1. eranskina EITB Mediaren FUNTZIO-ESPARRUAK.
- 2. eranskina. Oinarri hauetan jasotako hautaketa-prozesuan IZENA EMATEKO gida espezifikoa.
- 3. eranskina. MEREZIMENDU PROFESIONALAK ETA AKADEMIKOAK aurkezteko eta ziurtatzeko gida.

SARRERA

Oinarri hauen xedea da “Sareetako laguntzailea*” lanposturako enplegu-deialdi publikoaren arauak ezartzea, EITB Media, S.A.Uren zerbitzuko langile lan-kontratudun finko izateko.

EITB Media, S.A.U zuzenbide pribatuaren mendeko sozietate publikoa denez, oinarri hauetan deskribatutako hautaketa-sistema ez da oposizio-lehiaketa motakoa izango, ezta lehiaketa motakoa ere, eta ez die horien araubide juridikoari jarraituko.

Enplegu-deialdi honen ondoriozko plaza finkoak eta aldi baterako lan-kontratuak lan-kontratu izango dira, eta lan-zuzenbide erkidea eta EITB Media, S.A.Uren hitzarmen kolektiboa aplikatuko zaizkie, ezertan eragotzi gabe aplikatu beharreko arau eta printzipio orokorrak.

Horiek horrela, EITBren Zuzendaritza Nagusiarekin eta Administrazio Kontseiluarekin ados, eta EITB – Euskal Irrati Telebista ente publikoa sortzeko maiatzaren 20ko 5/1982 Legea aldatzen duen 8/1998 Legean xedatzen diren merezimendu- eta gaitasun-printzipioei jarraikiz, enplegu-deialdi publikoa ireki da, **EITB Media, S.A.Uko “Sareetako laguntzailea*” lanposturako 1 plaza finko** esleitzeko. Oinarri hauetan deskribatzen dira bete beharreko baldintzak.

1. PROZESU GUZTIETARAKO ARAU OROKORRAK

1.1. EBALUAZIO EPAIMAHAIA

Langile finkoak ente publikoko eta entearen sozietateetako plantillan sartzeko arauen arabera, Ebaluazio Epaimahaia arduratuko da prozesu bakoitzeko proben jarraipena egiteaz eta probak epaitzeaz. Epaimahaia enpresaren zuzendaritzako ordezkariak, langileen ordezkariak eta EITB ente publikoaren Administrazio Kontseiluak izendatutako kanpoko pertsona independenteek osatuko dute.

Ebaluazio Epaimahaiari dagokio hautaketa-prozesua kudeatzea, administratzea eta ebatzea, ente publikoari eta horren mendeko sozietateei aplikatu beharreko barne-arauen arabera, eta, orobat, hari dagokio hautaketa-prozesua behar bezala kudeatzeko beharrezkoak diren neurriak hartzea.

Ebaluazio Epaimahaiak pertsona fisiko edo juridiko espezializatuei agin diezaieke probak diseinatu, kudeatu eta ebaluatzea.

1.2. ARGITALPENAK: DEIALDIAK ARGITARATZEA, PROZESUARI LOTURIKO ARGITALPENAK ETA ERREKLAMAZIO-PROZEDURA

Langile finkoak EITB Taldeko plantillan sartzeko arauen arabera, hautaketa-prozesu bakoitzaren deialdia eta egutegia EITBren web-orrian argitaratuko dira (<https://www.eitbtaldea.eus/deialdi-publikoak.php>). Horren bidez kudeatuko dira, halaber, prozesuaren garapenari buruzko argitalpen eta komunikazio guztiak.

Eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik gehienez **30 egun naturaleko** epean, prozesu bakoitzean onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko zerrenda argitaratuko da. Zerrenda horretan adieraziko da baztertzeko arrazioa, eta, hala dagokionean, zein prozesutik kanpo geratu den ere bai.

3 egun naturaleko epea emango da erreklamazioak aurkezteko eta eskabideek izan ditzaketen akatsak zuzentzeko, zerrenda hori argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Erreklamazioak aurkezteko epea igaro eta erreklamazio horiek ebatzi ondoren, prozesu bakoitzean onartutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrenda argitaratuko da.

1.3. IZENA EMATEKO PROZEDURA

Parte hartu nahi dutenek eskabide bat aurkeztu beharko dute izena eman nahi duten hautaketa-prozesu bakoitzeko. Onartua izateko eta, hala badagokio, hautaketa-prozesuetan parte hartzeko, hauek egin beharko dira:

- Hautagaitza EUSKAL IRRATI TELEBISTA ente publikoaren webgunean (<https://www.eitbtaldea.eus/deialdi-publikoak.php>) behar bezala erregistratu, oinarrietan deskribatutako zehaztapen eta baldintzen arabera.
- Izena emateko inprimakiari eskatutako dokumentazioa erantsi, PDF formatuan, deialdiaren betekizunei jarraikiz.
- Izena emateko inprimakiari oinarri hauen 2.6 atalean deskribatutako merezimendu profesional eta akademiko puntuagarriak erantsi, PDF formatuan.

Ebaluazio Epaimahaiak beretzat gordetzen du hautagaiek aurkeztutako dokumentazioa egiazkoa dela egiaztatzeko eskubidea, dagozkion lege-ondorio guztiekin.

Beste bideren batetik jasotako eskaerak ez dira onartuko. Era berean, oinarrietan eskatutako betekizunak betetzen ez dituzten hautagaitzak baztertu egingo dira.

Izena emateko eskaerak aurkezteko epea 2025eko apirilaren 28an hasiko da, 13:00etan, eta 2025eko maiatzaren 13an amaituko da, 13:00etan.

Izena emateko eskaera aurkezteak berekin ekarriko du hautagaiak lanpostuen deialdi honetako baldintzak onartzea.

Izen emateko eskaeran, atal hauek bete beharko dira:

- a) Datu pertsonalak: izen-abizenak, NANA eta jaioteguna.
- b) Harremanetarako datuak: telefono-zenbakia eta helbide elektronikoa.
- c) Zein prozesutan parte hartu nahi den.
- d) Titulu akademiko egiaztatuak.
- e) Hizkuntza-eskakizun egiaztatua.
- f) B gidabaimen egiaztatua.
- g) C1 gidabaimen egiaztatua.
- h) Aurkeztutako merezimenduen egiaztagiria, arau espezifikoetan ezarritakoaren arabera.

Oinarri hauetan jasotako hautaketa-prozesuan izena emateko gida espezifikoak dakar 2. ERANSKINAK.

1.4. PROZESU GUZTIETARAKO BETEKIZUNAK

Hauek dira hautaketa-prozesuetan onartzeko betekizun orokorrak:

- a) Europar Batasuneko estatu kide bateko naziotasuna edukitzea.*

Halaber, parte hartu ahal izango dute Europar Batasuneko estatu kideetako herritarren ezkontideek, nazionalitatea edozein dela ere, eta zuzenbidez banatuta ez badaude; horrez gain, beren ondorengoek parte hartu ahal izango dute, baita, zuzenbidez banatuta ez badaude, ezkontideen ere, baldin eta, hogeita bat urtetik beherakoak badira, edo, adin horretatik gorakoak izanda ere, gurasoen kontura bizi badira.

Halaber, parte hartu ahalko dute Europar Batasunak hitzartu eta Espainiak berretsi dituen eta langileen joan-etorri librea aplikatzeko duten nazioarteko tratatuen aplikazio-eremuan sartzen direnek ere.

- b) Lehian den lanpostuari dagozkion zereginak egitea eragozten edo zailtzen duen gaixotasunik edo eragozpen fisikorik ez izatea, Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onartzen duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Dekretua aplikatzea ezertan eragotzi gabe.*

- c) Hamasei urte edo gehiago izatea, eta nahitaezko erretirorako adina ez izatea.*

- d) Eskatutako titulazioa, kasuan kasuko oinarri espezifikoetan adieraziko dena, edukitzea edo haren agiriak jaso ahal izateko eskubideak ordainduta egotea. Atzerriko titulazioen kasuan, homologazioaren egiaztagiria eduki beharko da. Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialeko batean ez beste batean eman den betekizunen edo merezimenduen egiaztagiri oro itzulita eta konpultsatuta aurkeztu beharko da.*

e) Indarrean den araubidearen arabera, desgaitasuna edo bateraezintasuna eragiteko legeko arrazoirik ez izatea, hark ematen dion aukera-eskubidea ezertan eragotzi gabe.

f) Oinarri espezifikoetan eskatzen den beste edozein betekizun.

Plazen hautagaiek betekizun horiek beteta izan beharko dituzte prozesuen deialdia argitaratzen den egunean, eta haiek betetzen jarraitu beharko dute, harik eta plaza esleitu eta kontratua sinatu arte.

1.5. LANPOSTU FINKOAK ESLEITZEKO ARAUAK

Ebaluazio Epaimahaiak ezin izango du deialdian eskainitako plaza kopurua baino handiagoa den hautagai kopurua proposatu langile finko bihurtzeko, kasu hauetan izan ezik:

- Hautatutako pertsonak uko egitean plaza esleitu edo kontratua sinatu aurretik.
- Aurkeztutako dokumentaziotik ondorioztatzen denean oinarrietan ezarritako betekizunen bat bete gabe dagoela edo hautagaia ez duela zereginak betetzeko behar den gaitasun fisiko edo psikikoa.

Kasu horretan, Ebaluazio Epaimahaiak esleipen osagarriaren proposamena egingo die kasuan kasuko izangaiei, hautaketa-prozesua gainditu dutenen behin betiko zerrendako puntuazio-ordenari jarraikiz, eta aipatutako zirkunstantzien ondorioz hutsik geratu den plaza adina hautagai hautatutzat joko du.

1.6. DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ALDEKO ENPLEGU-ERRESERBA

Desgaitasuna duten pertsonen aldeko enplegu-erreserba arautzen duten printzipioak eta *Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onartzen duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren 42.2 artikulua* betez, enplegu publikoko eskaintzetan, kopuru bat erreserbatuko da desgaitasuna duten pertsonak bete dezaten, gaia arautzen duen araudian ezarritako baldintzen arabera.

Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako plazetara aurkezten direnak, % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna aitortua eduki beharko dute foru-aldundietako organo eskudunaren, IMSERSOren edo horien baliokidearen aldetik, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak —horren printzipioak aplikagarriak dira, lehen xedapen gehigarriarekin bat— 59. artikuluan zehazten du enplegu publikoko eskaintzetan bete beharreko lanpostuen ehuneko zazpi erreserbatuko direla gutxienez, desgaitasuna duten pertsonak bete ditzaten.

Gutxienerako % 7 hori erreserbatzeko orduan gutxienez eskainitako plazen % 2 adimen-desgaitasuna egiaztatzen duten pertsonak betetzeko izango dira, eta eskainitako gainerako plazak, aldiz, beste edozein desgaitasun mota egiaztatzen dutenak betetzeko.

Deialdi honetan ez da plazarik eskaintzen txanda erreserbatu horretarako.

1.7. HAUTAKETA-PROZESUKO DATUAK BABESTEA ETA KUDEATZEA

Arduraduna: Nor da zure datuen tratamenduaren arduraduna?

EITB – EUSKAL IRRATI TELEBISTA – RADIO TELEVISIÓN VASCA ENTE PUBLIKOAK (Q0191001G), tratamenduaren arduradun gisa, langile-hautaketa kudeatzen du, bai beretzat, bai EITB Media, S.A.Urentzat (A48139224). Hala, tratamenduaren erantzule gisa dihardu, eta, halaber, ente publikoa da beretzat egiten duen tratamenduaren erantzulea.

Helbidea: Basurtuko Kaputxinoen kalea 2, 48913 Bilbo, Bizkaia

Telefono-zk.: 94 656 3000

Eskubideak baliatu ahal izateko helbidea: EITBren Aholkularitza Juridikoa, Basurtuko Kaputxinoen kalea 2, 48013 Bilbo (Bizkaia)

Datuen Babeseko ordezkariaren harremanetarako datuak: dbo-dpd@eitb.eus

Helburua: Zertarako tratatzen ditugu zure datuak?

Plazak betetzeko behar diren datu pertsonalak kudeatzeko, eta behin betiko zein behin-behinean bete beharreko plazetarako hautaketa-prozesuen ondoriozko lan-poltsa osatzeko; hautaketa-prozesua gainditu ez duten pertsonen lan-poltsa osatzeko.

Legitimazioa: Zein da zure datuak tratatzeko legitimazioa?

Datuen tratamenduaren lege-oinarria da pertsonen baimena, zeina Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 6.1.a) artikulua arautzen baitu.

Hartzaileak: Nori jakinaraziko zaizkio zure datuak?

Datuak ez dira lagako, salbu eta lagatzea beharrezkoa bada lege ezarritako betebeharrak betetzeko edo kanpo-hornitzaileen bidez zerbitzua emateko. Hautagaien eta hautatuen datuak EITBren webgunean argitaratuko dira zenbakizko kode baten bidez.

Nazioarteko transferentziak:

Datuak kudeatzeak ez du esan nahi datu horien nazioarteko transferentziak egingo direnik.

Kontserbazioa: Zenbat denboraz gordeko ditugu zure datu pertsonalak?

Datu pertsonalak lan-poltsan zauden bitartean gordeko dira; urtero eguneratuko dira, eta, poltsatik ateratzen bazara, urtebetez gordeko dira ondoren.

Eskubideak: Zer eskubide dituzu datuak eman ondoren?

Pertsona orok eskubidea du EITBk berari buruzko datu pertsonalak tratatzen dituen ala ez jakiteko.

Interesdunek eskubidea dute beren datu pertsonalak eskuratzeko, datu okerrak zuzendu daitezela eskatzeko, edo, hala badagokio, ezaba daitezela eskatzeko, besteak beste, datuak dagoeneko ez badira beharrezkoak jaso ziren xederako.

Inguruabar jakin batzuetan, interesdunek beren datuen tratamendua mugatzeko eskatu ahal izango dute. Kasu horretan, erreklamazioak egiteko edo horien aurrean defendatzeko bakarrik gordeko ditugu.

Inguruabar jakin batzuetan, interesdunek beren datuak tratatzearen kontra egin dezakete, beren egoera zehatzarekin lotutako arrazoiengatik. Enteak datuak tratatzeari utziko dio, salbu eta ezinbesteko legezkotako arrazoiengatik edo balizko erreklamazioen aurrean defendatzeko.

Interesdunek EITBri emandako datuen eramangarritasuna eskatu ahal izango dute, formatu egituratu batean —erabilera arruntekoa eta irakurketa mekanikokoa—, bere kasa deskargatu ahal izan ditzaten edo EITBtik beste entitate bati eskualdatzeko.

Interesdunak bere datu pertsonalen tratamenduari buruzko eskubideak balia ditzake arestian adierazitako posta-helbidean edo helbide elektronikoan. Gainera, Datuak Babesteko Agentziari erreklamazio bat aurkez diezaioke, bereziki, eskubideak baliatzean esperotako ordaina jaso ez badu, www.avpd.eus/hasiera/ webgunean adierazitako posta-helbidera edo helbide elektronikora idatziz.

Segurtasuna

Datu pertsonalak ezarritako segurtasun-neurri tekniko eta antolakuntzakoan pean tratatuko dira, hots, Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duen urtarrilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretuan xedatutakoekin.

2. OINARRI HAUETAN ESKAINITAKO KATEGORIARAKO ENPLEGU-DEIALDI PUBLIKOARI BURUZKO ARAU ESPEZIFIKOAK

2.1. EBALUAZIO EPAIMAHAIA

Langile finkoak ente publikoko eta entearen sozietateetako plantillan sartzeko arauen arabera, EITB Media, S.A.Uren Euskal Telebista negozio-unitatean lanpostuak betetzeko, Ebaluazio Epaimahaia honela osatuko da:

- a) Giza Baliabideen zuzendariak, Zuzendaritza Nagusia ordezkatzuz, izango du epaimahaiburutza, eta Giza Baliabideen Zuzendaritzako beste kide bati eskuordetu ahal izango dio.
- b) Giza Baliabideen Zuzendaritzako kide bat.
- c) Bete beharreko plaza dagoen zuzendaritzako kide bat edo arloko arduradun bat.
- d) Euskal Telebistako zuzendaritzetako kide bat.
- e) Administrazio Kontseiluak izendatutako bi kide.
- f) ETBko langile finko bat, bete beharreko plaza dagoen arlokoa edo atalekoa, Enpresa Batzordeak izendatua.

2.2. PLAZAK ETA SISTEMA

EITB – Euskal Irrati Telebista ente publikoa sortzeko maiatzaren 20ko 5/1982 Legea aldatzen duen 8/1998 Legean xedatzen diren merezimendu- eta gaitasun-printzipioei jarraikiz, enplegu-deialdi publikoa ireki da, **EITB Media, S.A.Uko “Sareetako laguntzailea*” lanposturako 1 plaza finko** esleitzeko. Oinarri hauetan deskribatzen dira bete beharreko baldintzak. Proba horiek beraiek baliatuko dira kategoria horretako lan-poltsa osatzeko.

Horrela, **“Sareetako laguntzailea*” lanposturako 1 plaza finkoren deialdia egiten da, Bilboko lantokirako.**

Hautaketa-sistema proban eta merezimenduen balorazioan oinarrituko da.

2.3. LANPOSTUAREN PROFILA

2.3.1. Lanpostuaren eta funtzio/zeregin nagusien deskribapena

Deskribapen orokorra:

Seinale-eroapenerako (igortzea, hartzea) behar den ekipamenduaren alderdi guztien (garraioa, muntaketa, doikuntza, eragiketa, desmuntaketa, kontrol materiala, egoera-zaintzea, etab.), ekipamendu horrek behar dituen osagarrien eta ekipo laguntzaileen eta ikus-entzunezko hargailu autonomoen nahiz horien osagarrien instalazio, eragiketa eta mantentze egokiaren

ardura duen profesionala. Gainera, esleitzen zaizkion ekipoen mantentze-lanak egingo ditu. Agindu zaizkion mantentze-lanetarako behar diren neurketa-tresnak erabiliko ditu.

Funtzio/zeregin orokorrak:

- Ekipamenduen erabileraz arduratuko da edo horretan lagunduko du, sareetako teknikariak edo arduradun hierarkikoak eskatuta.
- Esleitzen zaizkion ekipoen mantentze-lanak egingo ditu, arduradun hierarkikoek zuzenduta.
- Agindu zaizkion mantentze-lanetarako behar diren neurketa-tresnak erabiliko ditu.
- Funtzio horiek egiteko, ibilgailu, itsasontzi, helikoptero eta abarretan ibiliko da, ekoizpenerako beharrezkoa bada.
- Eskatzen zaizkion txosten teknikoak egingo ditu.
- Esleitzen zaizkion ibilgailuak gidatuko ditu (C1 gidabaimena).
- Esleitzen zaion tarteko loturaz arduratuko da.

2.4. BERARIAZKO BETEKIZUNAK

Prozesuan onartua izateko, hautagaiak, izena emateko eskabidean eta ziurtagiri ofizial bidez, ondoren zehazten diren betekizun espezifiko guztiak egiaztatu beharko ditu.

2.4.1. Titulazioa

Titulazio hauetakoren bat izan beharko dute hautagaiek:

- Telekomunikazio- eta informatika-sistemetako goi-mailako teknikaria.
- Sistema elektrotekniko eta automatizatuetako goi-mailako teknikaria.
- Antzeko titulu homologatua.

2.4.2. Hizkuntza-eskakizunak

2.4.2.1. Euskararen hizkuntza-eskakizuna

B2

2.4.2.2. Ingelesaren hizkuntza-eskakizuna

B1

2.4.3. Gidabaimena

B eta C1 klaseetako gidabaimenak izan behar dituzte hautagaiek.

2.5. EGIN BEHARREKO PROBAK

Lanpostuak betetzeko probak Ebaluazio Epaimahaiak zehaztu eta epaituko ditu, eta nahitaezkoak izango dira.

Ebaluazio Epaimahaiak pertsona fisiko edo juridiko espezializatuei agin diezaieke probak diseinatu, kudeatu eta ebaluatzea.

Probak zati teoriko batek eta zati praktikoko batek osatuko dituzte, eta horiek lanpostuaren deskribapenari eta funtzio orokorreari edo oinarri hauetako 2.3 atalean deskribatutako zereginen buruzko ezagutza espezifikoa ebaluatuko dituzte.

Proba Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan egongo da eskuragarri, eta hautagaiak azterketa egiteko unean erabaki ahal izango du proba zein hizkuntzatan egin nahi duen.

Atal hau gehienez 60 punturekin baloratuko da: 30 puntu zati teorikoa eta 30 puntu zati praktikoa. Atal teorikoa baztertzailerik izango da, eta gutxienez 15 puntu lortu beharko dira gainditzeko. Zati bakoitzean gutxienez 15 puntu lortu dituzten hautagaiei proba osoa (zati teorikoa eta zati praktikoa) gainditutzat joko zaie. Hautagaitzen puntuazio osoa zati teorikoan eta zati praktikokoan lortutako puntuaren bidez lortuko da, betiere horietako bakoitzean behar den gutxienera lortu bada.

Probak egiteari buruzko informazioa (gaikako blokeak / informazio-iturriak, datak, kokapena, ordutegiak, etab.) garaiz eta egoki jakinaraziko da EITBren webgune korporatiboan: <https://www.eitbtaldea.eus/deialdi-publikoak.php>.

Proba egokitzea behar duten hautagaiek (bitarteko eta doikuntza arrazoizkoak izan beharko dira; hautagaiak proba egiteko behar dituen giza baliabide materialak, asistentziak eta laguntzak, eta laguntza tekniko edo teknologiko lagundua) horixe eskatu beharko dute izena emateko unean, horretarako diseinatutako atalean.

2.6. MEREZIMENDUEN BALORAZIOA

2.6.1 Merezimendu profesionalak

Hautagaiak behar bezala egiaztatutako esperientzia balioetsiko da, eta gehienez **36** puntu jaso ahal izango dira.

Merezimendu gisa kontuan hartuko den esperientzia:

- a) Oinarri hauetan deskribatutako funtzioak bete izana Euskal Telebistan araubide arrunteko lan-kontratuarekin. **3,6** puntu lan-urteko (gehienez **36** puntu).
- b) Funtzio-esparru berean beste funtzio batzuk egin izana Euskal Telebistan araubide arrunteko lan-kontratuarekin. **2,7** puntu lan-urteko (gehienez, **27** puntu).

Kasu honetan puntuak lortzeko, a) kasuko batura, gutxienez, 6 hilabete izango da. Era berean, kasu honetan lortutako puntuazioak ezin izango du inola ere gainditu a) kasuan lortutakoa.

Atal honetako zenbaketarako kontuan hartuko den kategoria bakoitzeko funtzio-esparrua oinarri hauen 1. ERANSKINEan zehazten da.

- c) Oinarri hauetan deskribatutako funtzioak bete izana EITB Media, S.A.Urentzat informazio-zerbitzuak edo orotariko entretenimendu-programak ekoizten dituzten entitateek sinatutako kontratura adskribatuta. **1,2** puntu lan-urteko (gehienez, **12** puntu).

Kasu horretan, esperientzia honela lor daiteke:

- Besteren edo norberaren konturako lan-harreman arrunta eduki izana EITB Media, S.A.Uk kontratatutako entitate batekin.
- Norberaren konturako lan-harremana eduki izana (langile autonomia den aldetik).

Azken 10 urteetan lan egindako aldiak batuz egingo da zenbaketa. Kontratu-urtetzat hartuko da **360** eguneko aldia. Urtebetetik beherako aldietan, lan-denbora proportzionalki hainbanatuko da.

Hautagai bakoitzak egiaztatutako aldi bakoitza lehen adierazitako kasuetako batean bakarrik balioetsiko da, eta ezinezkoa izango da aldi bera merezimendu gisa kontuan hartzea kasu horietako batean baino gehiagotan.

Lehen adierazi dugun moduan, hautagaiak deialdia argitaratu den datara arte —egun hori barne— izan duen lanbide-esperientzia hartuko da kontuan. Beraz, data horretatik aurrerako lanbide-esperientzia ez da zenbatuko.

Hautagai bakoitzak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du, non jaso beharko baitira oinarri hauetan jasotako profilean eta funtzioetan egindako aldiak, egunetan adierazita, eta hautagaia zerbitzuan izan den entitateak behar bezala sinatuta eta zigilatuta aurkeztu beharko du.

Horrez gain, c) kasuan, hautagaiak egiaztatu beharko du zerbitzatzen duen entitatearen eta EITB Media, S.A.Uren artean sinatutako kontratura adskribatuta dagoela.

Illo horretan, EITB Media, S.A.Urentzat zerbitzuak ematen dituzten entitateek, jarduera amaitu delako edo entitatea desegin delako, ezin badute egiaztatu hautagaien esperientzia, hautagaiak erantzukizunpeko adierazpen bat erantsi beharko du. Adierazpen horretan, hau adierazi beharko du: zein profiletan aritu den eta zer funtzio bete dituen zerbitzua ematean, berariaz zehaztuta zerbitzu hori EITB Media, S.A.Urentzat eman dela; noiz hasi zen zerbitzua ematen, eta noiz bukatu; eta zenbat egunez eman duen zerbitzua.

Kasu berean, norberaren konturako harremana dagoenean, egindako zerbitzuen fakturak aurkeztu beharko dira, hautagaiaren erantzukizunpeko adierazpenarekin batera. Adierazpen horretan, hau adierazi beharko du: zein profiletan aritu den eta zer funtzio bete dituen zerbitzua ematean; noiz hasi zen zerbitzua ematen, eta noiz bukatu; eta zenbat egunez eman duen zerbitzua.

Ziurtagirian deklaratzeko diren aldi guztiak Gizarte Segurantzak emandako lan-bizitzaren txostena erantsita egiaztatu behar dira, eta adierazpenean jasotako aldiak bakarrik zenbatuko dira —deialdia argitaratzen den egunera artekoak, hori barne—, lehen adierazitakoaren arabera zenbatu ere, baldin eta lan-bizitzaren ziurtagirian jasotakoarekin bat badatoz, bai datetan, bai kontratupeko egunetan.

Ez da merezimendutzat hartuko prestakuntza-bekak edo -aldiak egin izana, hau da, enpresa batean lan-harremanik gabe egindako ikaskuntza-aldiak.

Aurkeztutako dokumentazioa egiaztatzearen, Ebaluazio Epaimahaiak dokumentazio hori osatzeko edo zuzentzeko eskatu ahal izango dio hautagaiari, egoki iritziz gero.

Ebaluazio Epaimahaiak egoki iritzitako erabakiak hartuko ditu jasotzen diren eskaeren merezimenduak zenbatzeari dagokionez, baina berdintasunaren, merezimenduaren eta gaitasunaren printzipioak bete beharko ditu beti.

2.6.2 Merezimendu akademikoak

Merezimendu akademikoen atalean gehienez **4** puntu lortu ahal izango dira, merezimendu hauen artean banatuta:

1. multzoa – HIZKUNTZAK

Hizkuntzak jakitea balioetsiko da, eta gehienez ere merezimendu akademikoei dagokien puntuazioaren % 10 jaso ahal izango da, hau da, 0,4 puntu, eta adierazitako mailaren egiaztapen ofiziala aurkeztu beharko da. Hizkuntza bereko maila bat baino gehiago egiaztatzen bada, maila altuenekoa bakarrik balioetsiko da, baremo honen arabera:

- Euskara:
 - C1 edo goragoko mailako titulu ofiziala – 0,28 puntu.
- Ingelesa:
 - B2 edo goragoko mailako titulu ofiziala – 0,12 puntu.

2. multzoa – PRESTAKUNTZA OSAGARRIA

Prestakuntza osagarria dela eta gehienez 3,6 puntu lortu ahal izango dira, hau da, merezimendu akademikoei esleitutako puntuazioaren % 90. Atal honetan, titulazio arautuak zein arautugabeak kontuan hartuko dira.

Horiekin guztiekin batera, zentro akademikoak emandako ziurtagiri ofizial bat aurkeztu beharko da, non adierazi beharko baitira iraupena (ordutan edo ECTStan) eta datak.

Baremo honen arabera emango dira puntuak:

- Prestakuntza arautu osagarria, hautaketa-prozesu honetan sartzeko eskatzen den maila berekoa. Atal honetako balorazioa ezingo da izan merezimendu akademikoen % 50ekoa (hau da, 2 puntu) baino handiagoa.
- Prestakuntza arautu osagarria, hautaketa-prozesu honetan sartzeko eskatzen den maila baino handiagokoa. Atal honetako balorazioa ezingo da izan merezimendu akademikoen % 25ekoa (hau da, 1 puntu) baino handiagoa.

- Prestakuntza arautugabea, oinarri hauetan eskainitako lanpostuari loturikoa, 35 ordukoa edo gehiagokoa. Atal honetako balorazioa ezingo da izan puntuazioaren % 15ekoa (hau da, 0,6 puntu) baino handiagoa.

Oinarri hauetan balioetsitako merezimendu profesionalak eta akademikoak aurkezteari eta ziurtatzeari buruzko gida espezifikoak dakar 3. ERANSKINAK.

2.7. PLAZAK ESLEITZEKO PROZESUA: AZKEN KALIFIKAZIOAK, BERDINKETA HAUSTEKO IRIZPIDEAK ETA AZKEN ESLEIPENA

Egin beharreko probak egin eta aurkeztutako merezimenduak aztertu ostean, Ebaluazio Epaimahaiak hautagai bakoitzak lortu duen guztizko puntuazioa zenbatuko du. Guztizko puntuazioa **100** puntu izango da, honela banatuta: probetan lortutako puntuak (**gehienez, 60 puntu**) + balioetsitako merezimenduengatik lortutako puntuak (**gehienez, 40 puntu**).

Plazak beheranzko ordenan esleituko dira, behin betiko emaitzen arabera (probaren emaitzaren eta merezimenduen emaitzaren batura).

Hala, plazan sartzeko fasea EITBk finkatutako egutegiaren arabera izango da.

Guztizko puntuazioan berdinketarik izanez gero, berdinduta dauden lehentasun-ordena ezartzeko, irizpide hauei jarraituko zaie, ordena honetan:

- a) kasuan esperientzia baloragarri handiena duena.
- b) kasuan esperientzia baloragarri handiena duena.
- Merezimendu profesionalen balorazio fasean puntuazio handiena lortu duena.
- Merezimendu akademikoaren balorazioan puntuazio handiena lortu duena.

Bestalde, ente publikoaren eta horren sozietateen plantillan langile finkoak sartzeko arauak jarraikiz, baldin eta, sarbide orokorreko modalitatea dela eta, prozesua gainditu duten hautagaien kopurua bete beharreko plazen kopurua baino handiagoa bada, prozesua gainditu arren plazarik lortu ez duten pertsonen lehentasunezko eskubidea izango dute hasieran hautatutako pertsonen probaldia gainditzeko ez dutelako hutsik geratzen diren lanpostuak betetzeko.

Era berean, lehentasunezko eskubidea izango dute kategoria bereko beste lanpostu batzuk betetzeko, Zuzendaritzak lanpostu horiek betetzea erabakitzen badu aurkeztu diren deialdia ebatzi ondorengo bi urteetan. Kasu horretan, jatorrizko deialdiko barne-sustapeneko fasea agortu bada, ez dira berriz lehiatu beharko.

Prozesu horren ondoriozko zerrendak EITBren webgunean argitaratuko dira.

2.8. LAN-POL TSA

Enplegu-deialdi publikoa amaitu ostean, hautagai bakoitzak lortutako emaitzak kontuan hartuta, oinarri hauetan adierazitako kategoriarako lan-poltsa sortuko da, eta horretara joko da kategoria horretako aldi baterako kontratazioetarako.

Prozesua gainditu arren plazarik lortzen ez duten hautagaiak automatikoki sartuko dira kategoria horretako lan-poltsa barematuan, beheranzko ordenan, lortutako behin betiko emaitzen arabera. Lan-poltsa hori aldi baterako kontratazio modalitate guztiei aplikatuko zaie.

OHAR GARRANTZITSUAK

- Prozesu honi buruzko informazioa EITBren webgunean argitaratuko da (<https://www.eitbtaldea.eus/deialdi-publikoak.php>).
- Hautagaiaren ardura da argitaratutako berrien jarraipena egitea (izena emateko datak, ziurtagiriak ematea, azterketarako deialdia, etab.).
- Prozesuari buruzko kontsultak helbide elektroniko honetara bidali behar dira: eitbdeialdiak@eitb.eus Hori izango da komunikazio-bide bakarra.

Kontsulta errepikatu eta esanguratsuenak webgunean prestatutako **“Ohiko galderak”** atalean argitaratuko dira.

ETB**SAREETAKO LAGUNTZAILEA***

- Produkzioko ingeniaria.
- Audioko koordinatzailea.
- Audioko teknikaria.
- Audioko laguntzailea.
- Kamera.
- Operadorea.
- Sareetako teknikaria.
- Sareetako laguntzailea.
- Unitate mugikorreko gidaria.
- Laguntzaile teknikoa.
- Biltegiko arduraduna.
- Biltegiko laguntzailea.
- Planifikatzailea.
- Mantentze-lanetako eta instalazioetako teknikaria.

2. ERANSKINA. Izena emateko gida espezifikoa

EITB-REN ENPLEGU-DEIALDI PUBLIKOETAN IZENA EMATEKO PROZESURAKO GIDA

- Enplegu-deialdi publiko honetan parte hartzeko izena emateko prozesua **2025eko apirilaren 28an hasiko da, 13:00etan, eta 2025eko maiatzaren 13an amaituko da, 13:00etan.**
- Epe hori amaitu ondoren, ez da izen-ematerik onartuko.
- Izen-ematea adierazitako eguna eta ordua baino lehen bidaltzen ez dutenek ez dute parte hartzeko aukerarik izango.

Eskaerak bidali diren egiaztatzea komeni da, hots, ez direla bidaltzeke geratu zirriborroetan. Bidalitako eskaerek bakarrik izango dute prozesuan parte hartzeko aukera.

Atxikita doa izena emateko gida, xehetasun gehiagorako:

IZENA EMATEKO GIDA

1. Ezinbestekoa da izena eman nahi duzun prozesuaren **oinarriak arretaz irakurtzea**, prozesuaren alderdi guztiak arautzen dituen dokumentua baita.
2. **Izena emateko prozesua 2025eko apirilaren 28an hasiko da, 13:00etan, eta 2025eko maiatzaren 13an amaituko da, 13:00etan.**

*** Gogoratu, behin BIDALI botoia sakatuta, ezingo duzula aldaketarik egin. Bidalketa egin beharko da propio horretarako ezarritako epearen barruan.**

3. Izena emateko prozesuaren helburua da hautaketa-prozesuetan parte hartzeko aukera ematea. Horregatik, ezinbestekoa da izena emateko eskaera bidaltzea izena emateko epea amaitzeko eguna eta ordua baino lehen. Izen-ematea adierazitako eguna eta ordua baino lehen bidaltzen ez dutenek ez dute parte hartzeko aukerarik izango.
4. **EITBren webgunea izango da izena emateko eta egiaztagiri guztiak aurkezteko bide bakarra.** Ez dira kontuan hartuko arestian adierazitakoaz bestelako bide batetik jasotako izen-emateak eta egiaztagiriak.
5. Parte hartu ahal izateko, **oinarrietan exijitutako eskakizunei buruzko eremu guztiak bete** beharko dituzu izena emateko formularioan, kasuan-kasuan eskatzen zaizun dokumentazioa aurkeztuta.
6. Hautagaiei eskatzen zaie **irakur ditzatela** parte hartu nahi duten prozesuaren **oinarriak** eta egiaztagiriak egoki aurkezteko gida berriro, edozein dokumentu atxiki aurretik. Halaber, parte hartu nahi duten pertsonei oinarri bakoitzean **ezarritako dokumentazioa bakarrik aurkezteko** eskatzen zaie, **ez baita balioetsiko oinarrietan jasota ez dagoen dokumentaziorik.**

7. Izena emateko formularioan, bi atal hauek bete behar dira:
 - a. **ESKAKIZUNEN** atala: NANA indarrean, gidabaimena indarrean, lan-bizitzaren ziurtagiria, sartzeko titulu ofiziala eta euskara-mailaren ziurtagiri ofiziala.
 - b. **MEREZIMENDUEN** atala: merezimendu profesionalak eta merezimendu akademikoak.
8. Izena emateko epea amaitu ondoren, behin-behinean onartuen zerrendak eta zuzenketak egiteko epea argitaratuko dira. Epe hori **eskakizunen ataleko dokumentuak zuzentzeko baino ez da izango.**
9. **Merezimenduen ataleko egiaztagiriei** dagokienez, jakinarazten da **prozesuan merezimenduen egiaztagiriak aurkezteko aldi bakarra egongo dela, izena emateko aldia bera dena (2025eko apirilaren 28ko 13:00etatik 2025eko maiatzaren 13ko 13:00etara).**

EZ DA EGONGO MEREZIMENDUAK AURKEZTEKO EDO ZUZENTZEKO ALDIRIK GERO.
Hautagaiek Ebaluazio Epaimahaiak merezimendu profesional eta akademikoen atalean ematen dien behin-behineko puntuazioa erreklamatu ahal izango dute, izena emateko aldian aurkeztu duten dokumentazioaren arabera.
10. Izena emateko epea amaituta, **zuzenketak egiteko epea argitaratuko da,** eta, behin zuzenketak eginda, ONARTUEN ETA EZ ONARTUEN ZERRENDAA.
11. Prozesuari buruzko informazio guztia webgunean jakinaraziko da. Hautagai bakoitzaren erantzukizuna da argitalpenak maiz kontsultatzea.

3. ERANSKINA. Akreditazio akademikoak eta profesionalak aurkezteko gida

AKREDITAZIO AKADEMIKOAK ETA PROFESIONALAK AURKEZTEKO GIDA

Ondorengo lerroetan jasotakoak informazio-balioa du soilik, eta deialdiaren prozesuen oinarrien alderdirik garrantzitsuenak laburbiltzen ditu; alegia, ez da juridikoki loteslea. Horregatik, komeni da oinarriak arretaz irakurtzea, horietan berariaz arautzen eta jasotzen baitira hautaketa-prozesuen alderdi guztiak.

Alderdi orokorrak

- Parte hartu nahi den prozesuaren **oinarriak berriro irakurtzeko** eskatzen dizugu. Oinarri guztiak ez dira berdinak; lanpostu jakin baterako oinarriak lanpostu horren berezitasunen arabera dira.
- Har ezazu kontuan oinarrietan **berariaz** jasotzen dena bakarrik hartuko dela merezimendutzat.
- Ez aurkeztu prozesuaren oinarri arautzaileetan jasota ez dagoen dokumentu gehigarririk.
- Hainbat prozesutan izena emanda bazaude, hartu kontuan dauzkazun egiaztagiriek ez dutela prozesu guztietarako balioko. Beraz, oinarriei jarraituz, aldeztu aurretik hautatu kasu bakoitzean erantsi behar dituzun egiaztagiriak.
- Prozesuetan merezimendu akademikoak eta profesionalak aurkezteko epea **apirilaren 28an hasiko da, 13:00etan, eta maiatzaren 13an amaituko da, 13:00etan. GEROAGO EZ DA EGONGO DOKUMENTAZIO GEHIAGO SARTZEKO ABAGUNERIK.**
- EITBren webgunea izango da egiaztagiriak aurkezteko bide bakarra. EZ dira kontuan hartuko arestian adierazitakoak bestelako bide batetik jasotako agiriak.
- **BIDALI botoia sakatu aurretik, egiaztatu hauek:**
 - Bete dituzula formularioko eremu guztiak.
 - Ez zaizula ahaztu aurkeztu beharreko egiaztagiririk.
 - Dokumentu guztiak behar bezala ireki eta bistaratzen direla.
 - Aurkeztutako egiaztagiriak dagokien atalean daudela.
 - Ez duzula aurkeztu punturik ematen ez duen dokumentazio gehigarririk. Beraz, ezabatu sobera dena.

* Gogoratu, behin BIDALI botoia sakatuta, ezingo duzula aldaketarik egin. Bidalketa egin beharko da propio horretarako ezarritako epearen barruan.

MEREZIMENDU AKADEMIKOAK

- **HIZKUNTZEN blokea**

Prozesu guztien oinarri arautzaileek adierazten dutenaren arabera, atal honetan merezimenduak balioestea nahi bada, kasuan-kasuan adierazitako mailaren **egiaztagiri ofiziala** aurkeztu behar da. Gainera, hizkuntza berean maila desberdinak egiaztatzen badira, maila gorena bakarrik balioetsiko da. Beraz:

- Atal honetan punturik lortu nahi bada, EZINBESTEKOA da oinarrietan ezarritako hizkuntzaren eta hizkuntza-mailaren EGIAZTAPEN OFIZIALA aurkeztea. Egindako ikastaroen frogagiriekin, online maila-probek, matrikulekin, ofizialak ez diren gainerako ziurtagiriekin, etab., ez dute punturik ematen. Ez itzazu aurkeztu.
- Oinarrietan jasotako hizkuntzek bakarrik puntuatzen dute. Beraz, ez sartu beste hizkuntzen egiaztagiririk.
- Hizkuntza jakin batean maila desberdinetako egiaztagiriak badituzu, aurkeztu maila handienekoa soilik.
- Egiaztagiri ofizialen balorazioa egiteko, iturri hauetara joko da:
 - **Euskara:** [EUSKARAREN JAKITE-MAILA EGIAZTATZEN DUTEN TITULUAK ETA ZIURTAGIRIAK BALIOKIDETU, ETA HIZKUNTZEN EUROPAKO ERREFERENTZIA MARKO BATERATUKO MAILEKIN PAREKATZEA.](#) - [Hizkuntza Eskola Ofizialak - euskadi.eus](#)
 - **Ingelesa eta frantsesa:** [2203047e.pdf \(euskadi.eus\)](#)

- **PRESTAKUNTZAREN blokea**

Prozesu bakoitzaren oinarrietan ezarriko da Ebaluazio Epaimahaiak zein prestakuntza balioetsiko dituen merezimendu akademikoen atalean.

Prozesu bakoitzean merezimendutzat hartuko diren prestakuntzak zehatz-mehatz identifikatzen dira oinarrietako bakoitzean. Irakurri arretaz parte hartu nahi duzun prozesuaren oinarriak, jakiteko zer egiaztagiri aurkeztu behar duzun, Ebaluazio Epaimahaiak balioetsi dezan.

Oinarri bakoitzaren prestakuntza-blokean, prozesu bakoitzean balioetsiko diren prestakuntzak zehazten dira.

Hau da prestakuntzen sailkapen orokorra:

PRESTAKUNTZA ARAUTUA: Hezkuntza eta Lanbide Heziketako **Ministerioak** araututako prestakuntza da, zeinaren bidez **lortzen baita titulu ofizial bat**: Lanbide Heziketako erdi-mailako gradua (teknikaria), Lanbide Heziketako goi-mailako gradua (goi-mailako teknikaria), unibertsitate-gradua (gradua), masterra (masterra) eta doktoretza (doktorea). Bloke honetan balorazioa egiteko, iturri hauetara joko da:

- Lanbide Heziketa: [Tituluak, mailak – LH osoa | Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa](#)
- Unibertsitateko prestakuntza: [Unibertsitate, Zentro eta Tituluaren Erregistroa \(RUCT\) - Hezkuntza, Kultura eta Kiroletako Ministerioa \(educacion.gob.es\)](#)

Bloke honetan kontuan hartu beharreko alderdiak:

- Prozesuan parte hartzeko aukera eman dizun sarbide-titulazioa EZ DA MEREZIMENDUtzat hartuko.
- Inola ere ez da merezimendutzat hartuko prozesuan parte hartzeko aukera eman dizun titulazioa baino maila baxuagoko titulazio arauturik.

PRESTAKUNTZA ARAUTUGABEA: Prestakuntza hori **ez da ofiziala**, eta pertsonak lanpostu batean eta lanbide-bizitza osoan lortu behar dituzten gaitasunetan trebatzera eta prestatzera bideratuta dago.

Ilido horretan, prestakuntza arautugabe nagusiek barnean hartzen dituzte enplegurako lanbide-heziketa, gradu, graduondoko eta master propioak, edo espezializazio-ikastaroak edo zeharkako ikastaroak.

Irakurri arretaz oinarriak, jakiteko zer prestakuntza arautugabe hartzen den merezimendutzat parte hartu nahi duzun prozesuan.

Bloke honetan puntuak lortzeko kontuan hartu beharreko alderdiak:

- Prestakuntza arautugabeak **lotura izan behar du lanpostuarekin, edo zeharkakoa izan behar da***, oinarri bakoitzean zer zehazten den.

** Zeharkako prestakuntzat hartzen da ikaskuntza arlo hauetakoren batean ardazten duena:*

- Trebetasun sozialei buruzko prestakuntza
- Segurtasunari eta Lan Osasunari buruzko prestakuntza
- Erabiltzailearen tresna informatikoei buruzko prestakuntza
- Aukera-berdintasunari buruzko prestakuntza
- Aniztasunari eta inklusioari buruzko prestakuntza

- Egiaztagiriak ikastaroaren **iraupena adierazi behar du ORDUt**an edo ECTStan, eta, **horrez gain**, oinarri bakoitzean adierazitako **ordu kopurua bete behar du. Prestakuntza-datak ere adierazi behar ditu.**
- EITBk antolatutako prestakuntza-ikastaroak, oinarrietan ezarritako iraupena betetzen badute, automatikoki zenbatuko dira; beraz, EZ da aurkeztu behar EITB Taldeak antolatutako prestakuntzen ziurtagiririk.
- Bekek, sariak edo mintegietara joateak ez dute punturik ematen.

Merezimendu akademikoen atalak gehieneko puntuazioa ezartzen du bloke bakoitzerako, eta, beraz, egiaztagiri ugari aurkezteak ez du nahitaez eragingo puntu gehiago jasotzea.

MEREZIMENDU PROFESIONALAK

Gogoratu arretaz irakurri behar dituzula parte hartu nahi duzun prozesuaren oinarrietan berariaz adierazitako lan-esperientzia aurkezteko eta egiaztatzeko oinarriak.

Kontuan izan oinarri bakoitzean adierazten direla zein alditan zenbatzen diren lan egindako aldiak. Egiaztatu ezazu aurkeztu dituzun ziurtagiriek eskakizun hori betetzen dutela.

Interesatuta zauden prozesurako merezimendu dira lanbide-esperientziako kasu hauek: Irakurri arretaz oinarriak, jakiteko parte hartu nahi duzun prozesuak zein esperientzia-kasu barne hartzen dituen, eta, ondorioz, zein egiaztagiri aurkeztu behar duzun:

- **Lanbide-esperientzia, 1. kasua: OINARRI HAUETAN DESKRIBATUTAKO FUNTZIOAK BETE IZANA EITB, H.E-N ARAUBIDE ARRUNTEKO LAN-KONTRATUAREKIN.**

Kasu honetan, oinarrietan deskribatutako funtzioetan emandako egun egiaztatuengatik **soilik** emango dira puntuak, baldin eta prozesu bakoitzeko oinarrietan adierazitako enpresan eta aldian araubide arrunteko lan-kontratuan jardun bada.

Atal honetan, **horretarako ezarritako eremuan**, EITBk emandako ziurtagirian agertzen diren **egunak adierazi** beharko dituzu. Ziurtagiri horretan, parte hartu nahi duzun prozesuan adierazitako kategoria zehatz-mehatz adieraziko da. Ez ahaztu **ziurtagiri hori aurkeztea**.

- **Lanbide-esperientzia, 2. kasua: FUNTZIO-ESPARRU BEREAN BESTE FUNTZIO BATZUK EGIN IZANA EITB, H.E-N ARAUBIDE ARRUNTEKO LAN-KONTRATUAREKIN.**

Kasu horretan, oinarrien arabera, *enpresan eta oinarri bakoitzean adierazitako aldiak*, **funtzio-esparru berean beste funtzio batzuetan** egindako lanegun egiaztatuak **bakarririk** zenbatuko dira.

Atal honetan, EITBk emandako **ziurtagiria aurkeztu** beharko duzu, eta, **horretarako ezarritako eremuan**, parte hartu nahi duzun prozesuan **FUNTZIO-ESPARRU** gisa ageri den kategorian (ikus eranskina oinarri bakoitzean), egun kopurua adierazi beharko duzu.

Garrantzitsua. Gogoratu oinarriek honako hau adierazten dutela:

- “B” kasuan puntuak lortzeko, “A” kasuko batura, gutxienez, 6 hilabete (180 egun) izango da.
- “B” kasuan lortutako puntuazioak ezin izango du inola ere gainditu “A” kasuan lortutakoa.

- **Lanbide-esperientzia, 3. kasua: OINARRI HAUETAN DESKRIBATUTAKO FUNTZIOAK EGIN IZANA EITB, H.E-RI ZERBITZUAK EMATEN DIZKIOTEN ENTITATEEK IZENPETUTAKO KONTRATURA ADSKRIBATUTA.**

Kasu horretan, oinarri bakoitzean adierazten denaren arabera, kanpoko ziurtagiriak baldintza hauek bete beharko ditu:

- **Oinarrietan jasotako profilean eta funtzioetan** emandako aldiak **EGUNETAN** adieraziko ditu edo parte hartu nahi den **KATEGORIA ETA PROFILA HORI BERA** aipatuko du.
- Ziurtagirian adierazitako aldia eta oinarrietakoa bat etorri behar dira.
- Hautagaia zerbitzua ematen aritu den entitateak sinatuta eta zigilatuta egon behar da.
- Hautagaia zerbitzua ematen aritu den entitatearen eta EITB Media, S.A.Uren edo EITB, H.Eren artean sinatutako kontratura adskribatuta egon izana egiaztatuko du (ikus oinarriak).

Izan gogoan, aurreko kasuetan bezala, ezinbestekoa dela egun kopurua dagokion eremuan adieraztea eta egiaztagiria aurkeztea.

- **Lanbide-esperientzia, 4. kasua: OINARRI HAUETAN DESKRIBATUTAKO FUNTZIOAK BETE IZANA SEKTORE PUBLIKOAN ARAUBIDE ARRUNTEKO LAN-KONTRATUAREKIN.**

Kasu horretan, oinarri bakoitzean adierazten denaren arabera, kanpoko ziurtagiriak baldintza hauek bete beharko ditu:

- **Oinarrietan jasotako profilean eta funtzioetan** emandako aldiak **EGUNETAN** adieraziko ditu edo parte hartu nahi den **KATEGORIA ETA PROFILA HORI BERA** aipatuko du.
- Ziurtagirian adierazitako aldia eta oinarrietakoa bat etorri behar dira.
- Hautagaia zerbitzua ematen aritu den entitateak sinatuta eta zigilatuta egon behar da.